



**2015eko – 2016ko Gabriel Aresti Sariak.**

**XXXII-XXXIII. Bilbao Hiria Ipuin Lehiaketa**

**Egileak: Katixa Agirre, Aritz Gorrotxategi, Urt Zubiaurre Otamendi, Gontzal Sánchez Negro eta Itziar Beasain.**

ISBN: 978-84-9109-214-8

Orriak: 112 or.

Saila: Narratiba, 104

Salneurria: 13 €

Guztiok anaiak gara 90eko hamarkadan girotutako ipuina da, unibertsitateko giroan, lazo urdinen eta kontramanifestazioen garaian. Gatazkaren eta elkarbizitzaren zenbait ertz eta kontraesan azaleratzen ditu, baita orduko bizimoduaren zenbait arrasto ere. Politika, sexua, gaueko giroa, atentatuak, traidoreak eta heroiak, musika, zinismoa, beldurra... Bide batez, ikuspegi epikotik urruntzen da erabat, eta gurean ez ohikoa den ikuspegia darabil.

Ipuin hau izan zen, hain zuzen ere, egileak 2015ean argitara eman zuen Koldar hutsa zara nobelaren atariko eta iturria.

Aritz Gorrotxategi  
Donostia, 2017ko azaroak 15

“Elkarrekin bidaiatzea dirua aurrezteko modurik onena zen.” Horrela hasten da liburua, eta horixe da zehatz-mehatz liburuak eskaintzen duena: elkarrekin egiten den bidaia merkea. Merkea bai, zeren ipuin laburrek, bidaia biziak, ez diote ahalegin handirik eskatzen irakurleari, denbora-tartetxoa aski izaten da ordainetan gauza asko jasotzeko.

Eta zer jaso lezake irakurleak?

Ba, hasteko, bikote ezezagun batekin egiten den auto bidaia bat, San Frantziskora izan litekeena, edo Los Angelesera edo San Diegora demagun. Edota, zergatik ez, Las Vegasera desertuan barrena. Baina, aurrez pentsatutako moduan gauzatzen al dira bidaiak? Aurrez jarritako helmugan amaitzen al dira, ala inork ezagutzen ez zuen lekuan eta garaian?

Atzerantz eginiko bidaietan ere maiz sortzen zaizkigu galderak. Gure gaztaroa nolakoa zen ikusiko bagenu, nolakoak ginen unibertsitateko kafetegian, Alde Zaharreko tabernetan, gauza askok harrituko gintuzke: esate baterako, zein modutan eragiten zion politikak gure arteko harremanari. Akaso orduan ez ginen eragin horren tamainaz jabetzen. Akaso oraindik ere ez gaude eragin horren tamaina neurtzeko moduan.

Izan ere, zaila baitzaio gizakumeari bere burua ulertzea. Hain zaila, ezen batzuetan zaldiz egin behar baita beste txango bat, auzo apartatuetaraino, basoen eta harkaitzen artean gordetako zokoetaraino. Ibilbide arriskutsuak direla ez dago dudarik. Nola bestela solastatuko dugu animalia errukitsuekin? Nola jakin zein den gizakiari buruz duten ustea?

Errukiaren eremuak izaten dira herri txikietako kanposantuak ere. Badirudi izaki hilak direla bertako nagusiak. Dena dela herdoila, goroldioa eta likena, eta bertan ez dagoela haurtzaroko beldurren eta estatua patetikoek konpainia besterik. Baina gauza dezente ezkututzen da hilerriaren baitan. Ispilu hoberik ez dago herritarren errukia zertan den bereizteko.

Ikusten duzu, irakurle, ez dela gutxi liburu honek hurrenez hurren eskaintzen duena. Paisaia eta galdera ugari, eta erantzun borobila topatzeko tarterik ez. Are gutxiago jakinik, konturatzerako, autoan eserita zaudela berriz, Isère bailarako errepide batean hain zuzen. Ez dakit zer esan: eguraldia bareagoa balitz, hotzagoa balitz, lortuko zenuke egiaren bat edo beste. Baina bero egiten du benetan, gizakiei erasan egiten die suak, eta zu ere bidaian aurrerantz eramango zaitu. Beste liburu batean sartu zarela igartzen diozun arte.

Urt Zubiaurre Otamendi  
Donostia, 2017ko azaroak 15